KANTOK
Egunero kantu bat asmatzeko 'Badok'-en jolasa
Klasikoak, berriak…
KANTOK jolasa
BADOK
aldi hau kontatzeko berria

berria

EKONOMIA

# Euskal Sagardoa aurkeztuko dute bihar, Euskal Herri guztiko lehen sor-marka

Eusko Jaurlaritzako, Euskal Elkargoko eta Nafarroako Gobernuko ordezkariek, sagardogintzako hainbat kiderekin batera, xehetasunak emango dituzte, Donostian, mugaz gaindiko jatorri izena eratzeko prozesuari buruz.



aldi hau kontatzeko

Orain, aldi berria dator. Zure aldia. 2025erako 3.000 babesle berri behar ditugu iragana eta geroa orainaldian kontatzeko.

Egin zure ekarpena

Ez da besterik Euskal Herrian. Euskal Sagardoa aitzindari izango da. Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako sagardogileek abiaturiko eskaera Euskal Herrikoa bilakatu da. Lurralde guztietako sagardo ekoizpenek izango dute babesa mugaz gaindiko jatorri izenaren pean.

Bihar emango dituzte hura sortzeko prozesuaren berri erakundeek eta sagardo sektoreko eragileek. Bertan izango dira Arantxa Tapia Eusko Jaurlaritzako Industria sailburua, Joseba Erramundegi Euskal Elkargoko Mugaz Gaindiko Europako eta Nazioarteko kontseilaria, Jose Mari Aierdi Nafarroako Gobernuko Landa Garapen eta Ingurumen kontseilaria, Unai Agirre Euskal Sagardoa jatorri izenaren zuzendaria eta Bixintxo Aphaul Domaine Bordattoko sagardogilea.

IKUSI GEHIAGO

Euskal Sagardoa, Euskal Herri guztiko lehen sor-marka

Mugaz gaindiko jatorri izena Europako Batzordearen eskumena da, ez estatuena. Unai Agirrek egin dio Europako Batzordeari eskaera, eta horren berri emango du.

Euskal Sagardoak Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako 50 sagardogile biltzen ditu gaur egun. Hemendik aurrera, Ipar Euskal Herriko eta Nafarroako sagardogileak ere batu ahalko dira tokiko sagarrarekin ekoitzitako eta kalitate bermea duen sor-markan. «Europako Batasunean lehen aldia da mugaz gaindiko arautegi bakarra egiten dela. Eder da, halere», goraipatu zuen azaroan Bixintxo Aphaulek, Ipar Euskal Herriko ekoizleen izenean, *Ipar Euskal Herriko Hitza*n egindako erreportajean.

Nafarroan, Sagarrica elkartea sortu dute sagardo sagarren ekoizleek. Lurraldean egun bost sagardogile badira, eta Euskal Sagardoa sor-markan sartzeko eskatua dute.

**aldi hau** *kontatzeko*

Orain, aldi berria dator. Zure aldia. 2025erako 3.000 babesle berri behar ditugu iragana eta geroa orainaldian kontatzeko.

**Egin zure ekarpena** →

Euskal Herria Europako Batasuna

## Bi hamarraldi. Milaka aldi.

Hogei urtez, milaka euskaldunen babesari esker, aldian aldiko kazetaritza independente eta profesionala egin ahal izan dugu. Orain, aldi berria dator. Zure aldia. 2025erako 3.000 babesle berri behar ditugu iragana eta geroa orainaldian kontatzeko.

Egin zure ekarpena

IRUZKINAK

Ez dago iruzkinik

Iruzkin bat egin

ORDENATU DATA




**aldi hau** *kontatzeko*

Orain, aldi berria dator. Zure aldia. 2025erako 3.000 babesle berri behar ditugu iragana eta geroa orainaldian kontatzeko.

**Egin zure ekarpena** →

## INTERESGARRIA IZANGO ZAIZU



### Munizioarako Jaurlaritzaren aurrekontua %138 handitu da lau urtean

JON O. URAIN



### Erkorekak esan du martxan jarri dituela Tolosako auzia argitzeko «neurri guztiak»

XABIER MARTIN



### Imanol Agirre: «Euskaldunok bigarren mailako hiritarrak gara Bilbon»

IÑIGO ASTIZ


**aldi hau**
*kontatzeko*

Orain, aldi berria dator. Zure aldia. 2025erako 3.000 babesle berri behar ditugu iragana eta geroa orainaldian kontatzeko.

**Egin zure ekarpena** →







## NABARMENDUAK

**aldi hau**
*kontatzeko*

Orain, aldi berria dator. Zure aldia. 2025erako 3.000 babesle berri behar ditugu iragana eta geroa orainaldian kontatzeko.

**Egin zure ekarpena** →

**Ander Iriarte:** «Pena da ETBk dokumentala ez ematea, publiko mota batengana ez baita iritsiko»

URTZI URKIZU

Hitanoa, arnasestuka

IRATI URDALLETA LETE

Etxean oinarrizko zaintza jasotzea, garestiegi

MAITE ASENSIO LOZANO

**Im** «G est ad na

AITO

## Harpidetu Berriaren buletinetara

**Mendia**
IKUSI >

**Arratsaldekoa**
IKUSI >

**Goizekoa**
IKUSI >

**Badok**
IKUSI >

**Astekaria**
IKUSI >

**Kinka**
IKUSI >

Izena ematean pribatutasun politika onartzen duzu.




Zure posta elektronikoa

Harpidetu

**aldi hau** *kontatzeko*

Orain, aldi berria dator. Zure aldia. 2025erako 3.000 babesle berri behar ditugu iragana eta geroa orainaldian kontatzeko.

**Egin zure ekarpena** →